

balaitze

2005eko MARTXOA,
131. ZENB. DOHAINIK



Joxe Azarola
piano jole
elektrikoa

MARTXOAK 16. ASTEAZKENA. KORRIKA ZUMAIAN

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iurre Altzibar

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Joanito Dorronsoro, Haize

Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,

Joseba Esnal.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	7
ze berri?	
zuhaitz eguna	8
korrika	10
euskal grafia	11
erreportaia	
joxe azarola	12
ibilbidea	18
kirolak	
igeriketa ikastaroa	20
orain hamar urte	23
gure zumai zarra	
joxe manuel manterola	24
kultura	28
musika	
arte: divergentes	
zine forum	
agenda	34



kirola igeriketa

Behar-beharrezki
kirola, onuragarria eta
interesgarria ere bai

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Larunbata iritsi da, iritsi da larunbata!!

Larunbata iritsi da, iritsi da larunbata!! ...Eta, Murphy delakoaren lege xelebreen jarraitzaile itsu, haurrak astegunetan baino lehenago jaiki dira, eta saltoka dauzkazu ohe gainean 7.30erako.

Aurreko egunean ohi baino beranduago ibili bazara (eta ostiral gauak nolakoak diren, ez? Ordu txikietan ibiltzera derrigortuko bazintuzte bezala...), ba, egindako bekatuak garbitu nahirik, edo, dena den, beste erremediorik ez dagoelako, jaiki, gosaria, kafe litroa zurrupatu, eta luze-luzea izango dela ziur zauden egunari aurre egiten diozu, ahalik eta aurpegi onenarekin.

Luzea, eta bai luzea ere, eguerdirako barruan duzun bateriatxoa bip!bip! egiten ari zaizu, ezinean, eta irtenbidea bururatzten zaizu: noski, goazen txutxe dendara! Zipi-Zape?, Txurre? Zein dago hurbilago? Zure burua zuritzeko, asteburua dela eta umeez ere zer-bait merezi dutela diozu; 10-20 minutuz isilik egotea gutxi al da?

Dendaratze estrategia erabaki eta aginduak, alferrik bada ere, ondo banatu: "Gaur larunbata da, ez igandea, bakoitzak gehienez ere 3 gauza, gai edo item nahi duzuen bezala, hiruetako batek gutxienez gazi-antzekoa izan behar du, patata edo dena delakoa... eta ezin dira guztiak bazkaldu baino lehen jan, eta ez ikutu ikusten dituzuen guztiak erabaki baino lehen, eta, eta..."



Suerte pittin bat baduzu, bazkaldu baino lehenagoko marianitoa edateko aukera izango duzu (larunbata da eta zeuk ere merezi duzu, ez?). Eta, ezinbestean patata edo denadelako gazi horietako bat edo beste jaten hasten zara; uzten badizute, noski, eta zein onak diren

"bixamunak" goxatzeko! Ez duzu pentsatu ere egin nahi zer gaiez eginak dauden, E311 eta bestelako gehigarriak pil-pilean, baina poltsari begirada bat ematen diozu, eta "estrellitas ez dakit zer, bilduma berri batekin".

Bildumako "minicard" edo txarteltxoa ikusi eta: batek "estoy hasta los huevos" dio, besteak "la salsa de la vida" (bi hanka pareren marrazkiak egoera jakin baten berri ematen duela).

Eta martxan daukazun neurona erdikak, txundituta, harrিতuta eta nahastuta benetan, ez daki zer pentsatu. "Patata hauek norentzat dira? Ama, hau zer da? galdetzen didatenean, zer esan? Astelehenean honi buruz zerbait egin behar dut!!"

Astelehena da, eta ez noa inolako kanpainarik egitera, baina gai librea tokatzen zaidanez, hor duzue punttua.



Miriam Romatet

Sudurgorriak

Hartzaroa agurtzea mingarria izaten da beti. Agian, horregatik aurkitzen dugu beti aitzakiaren bat, gure oroimen gero eta herdoilduagoetan egunetik egunera lausoago gogoratzen ditugun argazkiak berreskuratzen saiatzeko. Lewis Carroll eta James M. Barrie idazleek biderik konplexuena eta zirraragarriena aukeratu zuten, galdutako denborari agur esateko: ametszko mundu magiko eta beldurgarria sortu zuten. Mundu hori, hurrenez hurren, Alicia Liddell eta Peter Llewelyn haurrekin partekatutako esperientzietatik abiatu zen eta, bide batez, irekita utzi zituzten "Lurralde Miresgarriaren" eta "Sekula Betiko Lurraldearen" atek, gainerako helduok sartu ahal izateko.

Zorionez, beste zenbait unetan, Garfio kapitainaren atzetik dabilen erloju gupidagabe hori geldiaraztea lortzen dugu. Nik, behintzat, Sararen (bi urte) laguntza lañoaz, berriz ere

gozatu ahal izan nuen margotutako aurpegiek eta sudur gorriek iradokitako fantasiaz. Pirritxek eta Porrotxek azpikoz gora jarri zuten eguneroko ohikeria izugarria, irribarren bidez eta haurrentzako eromen osasuntsuaren bidez -hori grabatuta geratu zen alboan nuen bi urteko neskatoren aurpegian-.

Pailazoaren lotsagabekeriagatik, jadanik dantzatu ezin dudana dantzaren konpasa markatzen duten zapata izugarriagatik, ia inoiz ulertzen ez ditugun izaki txiki horien barre konplizearengatik. Horregatik guztiagatik, eskerrik asko, Pirritx eta Porrotx.



Koldo Landaluze

Gona kontuak

Ez tek giro. Ez nian aspaldian halako hezurretako hotzik pasa!
Erruki butanoik gabe geatzen dana!
Kwadrilakuak e tertulia lekuz aldatu bihar izan diau, estalapan ezitxion da eoteik e. Soziedadea jun gattuk, epelea (soziedadian izenik ez ematia erabaki yu, publizidadeik inori ez eiteko). Baña tertulia, beti bezela, segituan irakiten jarri dek .
- Aurreko "Baleike" letu al dek Joxe Luis?- Manuelek, parrez parrez.
- Geyena bai, inportantiena- Neuk.
- Neuke letu yat- Erramunek- Spingin o danadalako horrek kurio-sua emateik...
- Hi Erramun, nahiko yu! Hori guaintxe arte "ziklostatik" itia huan, ta hik hortako aurena bizikletan ibiltzen ikasi bihar dek gaña.
- Ai Erramun, hiri ziklostatik gañeukuak iruitu zaxkik "kuriosuak"
- Ta Damianen andriana ez al dezue letu? Axkolayak nahi omen dixkik Amaia plazako guak botatzeko.- Antoniok.
- Bai egiya, neuke letu yat.- Loentzok.
Eztiau bate parreik in, Arritxu gora ta axkolayak bera; kontuatzea-ko ilundu dik. Aldeiteakuan danok adarra jotzen:
- Damian, andriai ezaioik aber badakin zer dan "rotaflesa"! Hurrengo egunian han datorrela Damian buru makur; jesukristo-nak eta bi aituta; lur jota;
- Joxe Luis, andriak esantziak naekena esateko baño beai behintzat kasu ite zaiola, beitzeko bestela beko plazan nola kendu duen atia, beak eskatuta bezela. Ta geyo re esan zixkak, guriak arduan deliriyuak diala, garajiak baño hobe deula panteoi merkiak eskatzia, zer asmatu ez dakiula ta etzikiat ze geyo... Ah bai, Joxe Luis, andriak esan ziaik aber jostorratza zer dan badakiken!
- Esango zixkian bai, hire andria beti izan dek eta lotsagabia. Ta beko plazako kontu hori zer dek?


estalapetik



Joxe Luis

- Honen andriak zea eskatu zian- Antoniok seriyo seriyo- beko plazan, leno atiak zibitian hartan,umien parkia jarri zien, ta sarreran ate bat zitxion; ba Arritxuk hura kentzeko eskatu ta hurrengo egunian bertan kendu omen zien.
Beste kontuik ez omen zebilek plazan da kafeteyan.
Sinistu ezinian beko plazaño jun gattuk Erriberako taberna danak salto inda... ta egiya! Atia kenduta zio!
Orduan somatu yat Arritxun jostorratza zaxkaa!
Soziedadea bueltatu ta asanblea in diau ardo botellan bueltan, ta gauza batian behintzat danok bat etorri gattuk: Arritxuk txismia ta memelokeya besteik etzikak: bateko bazkaya ta besteko keja, ta tartian tartian zoakeyen bat (dixxosozko grua hoyena); ta andre horrek esandakuai autoridadiak kasu in ta hurrengo egunian atia kendu? Argi zioik: Arritxuk entxufe trifasikua zikak autoridadiakin, izan e azkenaldiyan guriak autoridadiak gonak zixkak, ta gona gonakin beti neurrira!
Gauzak nola daben ikusita Ayuntamiento aurea gona eskozesak jantzita jutia pentsau diau kuadrilan, aber hola behintzat kasu iten dun autoridadiak!
Ayuntamientua obretan daonez noa jun bihar deun pentsatzia besteik etzaiguk falta!
Laixe jakingo dezue nun da noiz!
Ayuntamientua obretan daonez protestan noa jun bihar deun erabakitza besteik eztaiguk falta.
Laixe jakingo dezue nun da noiz.

dani



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 102 - Juan Belnorne, 2 baje - 20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ESTATUA, NAZIOA.....

Joxe Joakin Aizpurua

Eskolan ikasi genuenez, Espainiako estatuko egitura politikoa monarkia parlamentarioa da. Hori entzunda, lehenik burura etortzen zaidana da ez zela demokratikoki aukeratua izan.

Estatu espainolak duen defizit demokratikoaren seinale bat hainbeste errepikatzen dugun herrien eskubide nazionalakiko errespeturik eza da, eta horretan inork zalantzarik baleuka, guk hori etengabe errepikatzen dugu, baina gogoratu beharrekoa da, nire ustez, gure iritzirako jakintsu diren hainbatek ere, kanpotik begiratuta, zalantzarik ez duela egiten gure izaera berezia (nazio izaera) inolaz ere dudan jarri ezinekoa dela.

Hori garbi utzita, sarri zer pentsatua ematen digun gai bat argitzen ahaleginak egin nahi nituzke. Euskara da eus-

kaldun egiten gaituena, baina gure gatazkan euskaraz dakigunok bakarrak sartzen al gara? Izan ere hitz baten falta sumatzen da arazoari beste adar bat gehitzeko. Alegia, euskaldunona arraza bat dela gehiegitxo esatea bada ere, nola deituko genioke gure ezaugarri berak eduki eta dena delakoagatik euskaraz ez dakienari? Nire iritzia da kasu bat baino gehiagotan "euskaldun" deitura eman izan geniokeela horri ere. Baina halaber, kontrako kasua eman denean ere izen bera emateko lotsarik ez dugu izan.

Azken garaian asko azpimarratu izan da, autodeterminazioaren inguruan, nahi duena sartuko dela eraikitzeaz dagoen proiektu politikoa. Izan ere, inguratzen gaituzten herrien aldean,

guk, oro har, beste zintzotasun bat dugula uste dut. ETAz ez nago ahaztuta, baina ETA hor dagoen arren gogoratu beharrekoa da hasieran aipatzen genuen monarkia parlamentarioa ez dela zenbaitek dioen bezain demokratikoa, gero zehaztu dudana bezala.

Hala ere, autokritika bat egin gabe ez dut amaitu nahi. Askok desio dugun autonomia maila politikoa lortuko bagenu, ziur nago ez litzatekeela erabat demokrata izango gure sistema. Alde batetik neoliberalismo ekonomikoak urrats sakonak egin ditu gure gizartean, eta bestetik, zenbait baino zintzoagoak izanagatik, martxan jarri diren ustezko sistema demokratiko guztiek porrot egin dute beti, gizakiaren berezko izaeragatik.

hemeroteka

Otsailaren 26ko BERRIAN azaldutako zutabea

Picassoren zapatilak

Hasier Etxeberria

Pentsatzen jarrita, joko apur bat eman dezake lehengo batean aipatu genuen Guernica koadroak. Ordukoan, artelan berri baten kontenplazioan inor ez dela guztiz garbia erakusteko erabili genuen adibide hori, denok daukagula zerbait ganbaran, alegia. Horretan asko egin du, gainera, Guernicak. Bai, arterik batere ikusi gabekoak ere badaki ezin duela esan Guernica kaka zaharra denik. Inozoenak ere badaki koadro horretan zerbait dagoela eta apur bat gehiago begiratzen badio, asko dagoela ere bai. Les demoiselles d'Avignon ez zaio interesgarri egingo, agian. Arbuiatu ere egin dezake Picassoren gainerako lan guztia.

Zergatik ez? Baina Guernica, beste kontu bat da. Pasatuko da mende oso bat eta askorentzat Guernica izango da arte modernoaren ataria. Bai gurean, behintzat. Adin ezberdinekoentzat izan da Guernica eraginkor. Berari esker daki askok arte plastikoetan zirriborroa baino apur bat gehiago ere egon daitekeela. Pintura hori nolabaiteko kanon bat da gure gurasoentzat, geure lagun askorentzat, gazteago batzuentzat... eta ondo sentitzen dira berari esker, arte modernoa ere uler dezaketela sentitzen baitute. Jo dezagun, ba, Guernica koadroa onartzera iritsi dela Moises izeneko morroi bat. Gudaren miseriak eta giza-izaeraren izugarrikerien aztarnak ikusten ditu bertan Moisesek. Badaki koadro horretan ez dela erabili


izan berari gustatzen zaion arte-erarik, baina futitu egiten da horretaz. Berdin zaio, alegia. Bai, berdin zaio koadroan agertzen diren txorimalo moderno horiek guztiak kubistak edo espresionistak diren. Berari arte moderno hori atsegin zaio eta ulertu egiten du. Eta Guernica koadroa gogoan duela ausartzen da euskal artista gazte batzuen erakusketan sartzera, erakunde garrantzizko baten aretoan. Eta han galdu egiten da, ez zaio ezer interesatzen, ez du ezer ulertzen, gauzak gaizki eginak daudela begitantzen zaio, gaur egungo arteak ez daukala ez hanka eta ez bururik, haur batek ere egingo lukeela horrelakorik, etc. Baina lanen zerrendatik artelan batek egin dio dei bere tituluagatik. Azafataren zapatilak deitzen da. Gazte zumaia batek egin da, antza. Eta hasten da artelan horren bila. Jira eta bira eta inon ez da ageri artelana hormetan. Azafatari galdegiten dio orduan, eta honek bere zapatila normal-normalak seinalatuz, hauexek dira, esaten dio.

Moisesek elektrokuzio itzel bat sentitzen du, mundua erotu egiten dela, zernahiri deitzen diotela gaur artea, inozotzat hartu dutela, etc. Guernica, sikiera... Nola izan litezke azafataren zapatilak artea?, galdetzen dio bere buruari, eta asalaturik eta ernegaturik irten egiten da aretotik, susmatu ere egin gabe bete-betean asmatu duela Zumaiaiko gaztearen artelan bikainak berarekin.

Telmo Deuneko fitxajeen aurka

INKESTA

Bandera bat edo beste irabazteko aukerak izan ditzakete aurtengoan Telmo Deunekoek. Horretarako kanpoko jendea fitxatu behar izan dute, eta ez du ematen horren aldekoak direnik zumaiarrak. Ez, behintzat, inkesta atalean erantzunak eman dituztenak. ikusi beharko dugu banderaren irabazten badute jendeak zer aurpegi jartzen duen. Hemen alboan, inkestaren emaitzak dituzue. Azpian, berriz, iritzi batzuk.



IRITZI BATZUK

Jasotako iritziak

Torkuato 2005/02/16 - 04:01 PM

Heri ondo iruditzen zait fitxaketa batzuk egitea, baina neurrian jotaketa ezinbestekoa da. Izan ere, ezin da alde handirik egon etxekoek eta kanpokoek artean; ondo iruditzen zait kanpokoek dieta batzuk ematea bihurtzeko gaitzak konzentratzeko, baina ez hileko "soldata" edo sarrieta bi maila bereiztea. Bestalde, oso garrantzitsua da etxekoak ondo mimatzea, kanpotarako lehenesten ibil gabe, oso garrantzitsua baita etxekoek kopuru jakin bati eutsi eta harrobia elikatzen jarraitzea.

betini 2005/02/17 - 09:34 AM

pozik entzungo nuke klubeko jendearen iritzia, bestela, ezin det fundamenturako iritzi eman: zergatik "politika" aldaketa hau? zer dio zuzendaritzak, arauariarik, emenatzaileek?? eta gartiak, hauen iritzia zen da? denak pozik baldin badaude, eta klubarentzat onena dela esaten badute denek, ni konforme.

Gorritxu 2005/02/17 - 02:50 PM

Torkuato eta Betiniekin ados nagoela uste dut baina beste galdere batzuk ere badituzte:
1.- Hala buelta daiteke harrobia kanpoko hainbeste fitxajeak eginez?
2.- Jakingo al dugu noizbait zenbat kobratuko duten benetan fitxaje hauek eta zenbat herriko gasteek? Denek berdin kobratuko dute?
3.- Ze sarrerak dauka Aita Mari Araun Elkarteak aurtengo denboraldira? Bi traineru osatu eskero, biak uretan mantentzeko haina? Aztiararen ikazle sarrerakuek ote dira? Ez zate Emesleri bezala gertatuko?
4.- Proiektuaren iraupena eskeritzen al dute adin horietako fitxajeak?
5.- Ez al dago Aita Mari Araun Elkarteak interes ekonomikoa garbi baten mende?

dekorazioa

ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Alberdi

Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA

Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

zuhaitz eguna artadiak berreskuratzen

Martxoaren 12an ospatuko da aurten Gipuzkoako Zuhaitz Eguna. Hori dela eta, Foru Aldundiak hainbat ekimen prestatu ditu. Horietan nagusietako bat Zumaian izango da.



G

ITZIAR GARATE

ipuzkoako Foru Aldundiak martxoaren 12an, 2005. urteko Zuhaitz Eguna ospatzeko, 250 zuhaitz landatuko ditu. Landaketa lanak Zumaiaiko 50 gaztek egingo dituzte, larunbatean, hilaren 12an, eguerdiko 12tan, Landarte nekazalturismoaren ondoan. Espezieak ugari landatuko dituzte, baina guztietan nagusi artea izango dugu. Landaketa egunerako, ikasleek artadien ezaugarriak ezagutuko dituzte eskolan, batik bat artadien garrantzi ekologikoa eta egun duten babes beharra.

Helburuetako bat ekosistema honen azalera berreskuratzen joatea izango da. Aziendek bazkatzeko erabili ohi izan direnez, zati batzuetan zuhaitzak desagertu egin dira. Horregatik, honelako ekintzekin lehengo egoera berreskuratzea bilatzen da. Ekologi nahiz paisaiaren ikuspegitik duten garrantziaz jabetuta, Zumaiaiko Udalak inguru honetako artadiak berreskuratzea erabaki du. Zuhaitz landaketa lehen urratsa izango da artadi hauen berreskurapen ekologikorako.

Artadiak Gipuzkoan

Gipuzkoako artadi handienak, Deba eta Urolaren arrotako kostaldeko mendialdeetan daude, Mutrikutik hasi

eta Zumaiaraino. Artadi auzorako bidean aurki dezakegu nagusietako bat; beste bat, berriz, Arno deituriko basoan (Mutriku eta Mendaro artean). Azken hau da guztietan handiena jatorrizko hedaduraz. Artadi hau Europako araudiak babesten du eta Natura 2000 Sarea deitzen den Europako Espazio Babestuen Sareko gunetako bat da. Garrantzi Komunitarioko Leku kategoria du 1992. urtetik. Artadiak kosta aldean ikus ditzakegu. Zuhaitz hauek klima lehor eta eguzkitsuetara moldatutako basoak osatzen dituzte eta hain euritsua den kantauriar alde honetan aurkitzea deigarria gertatzen da. Baso hauetan, garrantziko fauna eta flora espezie ugari bizi da eta, Europa mailan, oso urriak direnak, gainera.

EGITARAUA:

- 10:00 Eusebio Gurrutxaga Plazan (Beheko Plazan) elkar-tu eta oinez Artadiko Mikel Deunara oinez abiatu.
- 10:45 Landaketa eremuan (Landarte nekazalturismoaren ondoan) egin beharreko lanari buruzko azalpenak.
- 11:00 Taldeak egin, lanabesak banatu eta zuhaitzak landatu.
- 11:45 Hamaiketako (han banatuko da) eta Miriam Mendoza ipuin kontalaria.
- 12:30 Amaiera

xabier aranguren zumaiaiko natur taldeko kidea "Aurreko urteetan zuhaitzak landatu ditugu, baina aurtengoan aldatzea erabaki dugu"

Baina hau ez da herrian aurrera eramango den ekimen bakarra. Zumaiaiko Natur Taldeak aurten zuhaitzik landatuko ez duen arren, beste mota bateko ekitaldiak antolatu ditu. Hauen inguruan mintzatu gara Xabier Aranguren, Zumaiaiko Natur Taldeko kidearekin.

Orain arte egun honetan zuhaitzak landatu dituzue. Aurten ere gauza bera egiteko asmoa duzue ala beste ekimen batzuk prestatu dituzue?

Aurreko urteetan zuhaitzak landatu ditugu, baina aurtengoan aldatzea erabaki dugu. Ez dugu zuhaitzik landatuko, baina hitzaldi pare bat eta irteera bat ere prestatu dugu.

Nolakoak izango dira ekimen horiek?

Martxoaren 10ean Diego Mendoza biologoak hitzaldi bat eman zuen, "Zuhaitzak Euskal Herrian eta munduan" izenburupean. Beste hitzaldia Aitor Leizak emango du, hilaren 11n ostiralean, zuhaitz mota ezberdinei buruz hitz egingo du. Eta Martxoaren 13an Arnora egingo dugu irteera.

Foru Aldundiaren ekimen honetan parte hartzeko asmorik ez duzue azaltzen, beraz.

Ekintza hau beraien inizatiba izan da eta ez dut uste parte hartuko dugunik. Guri inork ez digu ezer esan, eta guk azken orduan izan dugu prestatu dutenaren berri. Ez dugu inolako deirik ez ezer jaso. Beraz, ez dut uste gu han izango garenik. **Herrian zehar entzun dira aurreko urteetan landatutako zuhaitzen zaintzari egiten zaizkion kritikak. Benetan hauen ardura nork hartzen du?**

Udalarekin adostu genuen zaindu eta errespetatu egingo zituztela landatutako zuhaitzak. Azkeneko landaketa Kirol Portuaren parean egin genuen, paseoan. Padura aurrean geratzen den malda batean. Dirudienez, belarra mozteko makina horiekin zuhaitzaren enborra moztu dutela edo, behintzat, azala moztu eta pixkanaka lehortzen joan dira.

Zumaiaiko Natur Taldeak urtean zehar ekintza gehiago prestatzen ditu. Herriak ematen duen erantzuna zein da?



Irailare 25ean isurketa salatzeako bilkurara deia egin zuen Zumaiaiko Natur Taldeak

Nahiko pobrea izaten da orokorrean. Azken urteetako ekintzetan jende gutxi izan da. Salbuespena urtean behin egiten ditugun asteburu pasako irteerak izaten dira.

Irteera horiek nora egiten dira?

Orain artean hiru egin ditugu. Leku eta paraje bereziak bilatzen ditugu, balio naturalagatik interesgarriak eta ezezagunak. Irteera horietan jende pixka bat gehiago ezagutzen saiatzen gara, eta bide batez, guk egiten dugunaren berri ematen. Gauza asko lantzen saiatzen gara.

Zer egin daiteke orduan, Zumaiaiko herriaren naturarekiko ardura zuhaitz baten moduan hazi dadin?

Nik Hemendik jendea animatu nahiko nuke ekintzetan parte hartzera. Zaila da jendea konbentzitzea baina gu hor gaude eta guregana hurbiltzen den edonor ongietorria izango da.

EGITARAUA


- Martxoak 11: arratsaldeko 19:00etan Zumaiaiko Natur Taldeko lokalean, Oxford gainean. Aitor Leiza, Zumaiaiko Natur Taldeko kidea. **ZUHAITZAK BEREIZTEN IKASTEKO TAILERRA**
- Martxoak 13: goizeko 8:15ean Zumaiaiko Tren Geltokian. Irteera ARNO mendira.

**GAZTE, S.L.**
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

**Emilio Perez**
Elektrigavio, telebista eta instalazio
elektrikoan salmenta eta konponketa

ADI

NASADI 28
20750 ZUMAILA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adia@euzkalinet.net

Martxoak 16. Asteazkena. 9:30ean. Korrika Zumaian.

Martxoaren 10ean Orreagan (Nafarroa) abiatu eta martxoaren 20an Bilbon amaituko da Korrika 14. 10 egun hauetan 2.150 kilometro egingo ditu Euskal Herri osoan zehar. Gurera martxoaren 16an helduko da. Goizeko 9:30ak inguru izango dira Korrika 14ko karabana Zumaiaara helduko denerako.

Getaria pasa ahala hartuko du lekukoa Zumaia eta Arroan emango du, Zestoara bidean. Arlo guztietako 15-20 talde inguruk eramango dute lekukoa tarte honetan. Herrian egingo duen ibilbideari dagokionez, ohikoa izango da: Patxita Etxezarretatik sartu eta moilan barrena joango da Amaia Plaza buelta emateko; gero Erribera kalean sartu eta Jadarrentz joko du zestoarrei lekukoa eman arte.

Korrika Zumaiaara heldu aurretik, Korrika Kulturalaren baitan zenbait ekitaldi antolatu ditu Zumaia Korrika Batzordeak. Pasa diren egunetan zinema saioa eta talo jana izan dira herrian. Datoren egunotan ere izango da zer ikusi eta entzun Zumaian.

Larunbatean, hilaren 12an, Korrika Eguna izango da Zumaian. Eguerdian, Kofradian inguruan, Herri Eskolako eta



Korrika kulturalak taloak banatu zituen Kofradiako plazan

Maria eta Jose Ikastetxeko euskal dantza taldeen ekitaldia izango da, eta jarraian, Bertso Eskolako ikasleen saioa. Arratsaldean, 5etatik aurrera, Erribera kalean hasi eta herriko kaleetan zehar, Perkusio Taldeko kideen kalejira izango da. Ordu erdi geroago, 17:30ean, Kofradian, San Pedro Txiki eta Txikiak abesbatzaren saioa entzun ahal izango da.

Gauean, berriz, bertso afaria izango da

Behoko Plaza Elkarteko jatetxean. 21:30ean hasiko da afaria eta parte hartuko duten bertsolariak Unai Gijarro, Leire Ostolaza eta Iñigo Eizagirre-Olabe izango dira.

Honekin amaituko dira Korrika Kulturalarekin lotutako ekitaldiak. Esan bezala, Korrika martxoaren 16 goizean pasako da Zumaitik. Prest al gaude denok korrika egiteko?

Azoka arrakastatsua

Otsailaren 12 eta 13an egin genuen bigarren eskuko liburu eta disko azoka. Bildutako ia material guztia saldu ondoren, 4.028,67 euro bildu genituen. Kopuru hori Lagundu Batticaloari ekimenera bideratu dugu dagoeneko.

Honen bitartez gure eskerrak luzatu nahi dizkiegu materiala bidali duten euskal argitaletxe eta diskoetxeei eta, nola ez, Zumaia herriari. Datorren urtean elkar ikusiko gara berriro ere. Eskerrik asko denoi!



Izen-abizenak euskal grafiara egokitzeko kanpaina martxan

Zumaiako Udalak, Euskararen Aholku Batzordearen ekimenez eta herriko bake epaitegiarekin elkarlanean, izen-abizenak euskal grafiara egokitzeko kanpaina jarri du abian. Interesatu guztiak martxoaren 7tik maiatzaren 31ra bitartean izen-abizenak euskal grafiara egokitzeko aukera izango dute.

Herriko Euskararen Aholku Batzordetik atera da oraingoan kanpaina hau martxan jartzeko ideia. Zumaiako Udalak lehenago ere egin ditu horrelako kanpainak, baina esan bezala, oraingoan, Euskararen Aholku Batzordeak erabaki du egokia izango litzatekeela berriro ere kanpaina bat egitea. Batzordea udazkenean sortu zenez gero lanean ari da, eta Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartze zuzena izan du. Hala ere, herritar guztiei begira ere, zerbait egin nahi zela eta, izen-abizenak euskarara egokitzeko aukera ematea hasteko modu egokia zela iritzi zion.

Beraz, Udalak asmo hori bere egin eta martxoaren 7tik maiatzaren 31ra bitartean, izen-abizenak euskal grafiara egokitzeko erraztasunak emango ditu. Horretarako, bake epaitegiarekin harremanetan jarri da eta bien artean lan sistema bat adostu dute. Modu horretan izen abizenak aldatu nahi dituen herritarrak bi aukera izango ditu:

Bake epaitegian bertan egitea: epaitegiak asteko egun eta ordu batzuk izendatu ditu,

tramiteak egin nahi dituzten herritarrak hartzeko. Beraz, kanpainak irauten duen ia hiru hilabeteetan, ostegunero goizeko 11:00etatik, eguerdiko 14:00ak arteko tartea gordeko du eginkizun horretarako. Hala ere, epaitegian egin nahi izanez gero, komeni da aurretik deitu eta ordua eskatzea 943 860067 telefono zenbakira deituta.

Udaletxean egitea: Horretarako Udaleko Euskara Zerbitzura jo behar da. Udaletxean aste guztian egin ahal izango da goizeko 08:00etatik, arratsaldeko 15:00ak bitartean. Bertan daude bete beharreko eskaera orriak, errolda agiria ere Udaletxean eman-goa da, eta ondoren, Euskara Zerbitzuak dokumentazio guztia bildu eta bake epaitegira bideratuko du, herritarrari tramiteak erraztearen.

Izen-abizenak euskal grafiara egokitu nahi duen guztiak, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Nortasun Agiria
- Familia liburua

Kasuren batean bestelako agiririk behar balitz, Udaletxean nahiz bake epaitegian jakinaraziko zaio interesatuari.

Kanpaina hau euskara biziberritzeko planaren inguruan Udalak martxan jarri dituen ekintzen artean aurkitzen da. Pasa den astean 2005. urterako kudeaketa plana aurkeztu zen eta plan honen ildotik hainbat ekintza martxan jarriko dira.

ABIZEN BERBERA, HAINBAT AUKERA

Telefono gida begiratzan badugu, abizen berberak modu desberdinetan idatzita ikusiko ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

- Agirrezabalaga eta Aguirrezabalaga.
- Alkorta eta Alcorta.
- Azkue eta Azcue.
- Calparsoro eta Galparsoro.
- Cendoya, Cendoia eta Zendoia.
- Cearreta eta Zearreta.
- Chapartegui eta Txapartegi.
- Corta eta Korta.
- Echabe, Echave eta Etxabe.
- Echeberria, Echeverria eta Etxeberria.
- Echaniz eta Etxaniz.
- Goicoechea eta Goikoetxea.
- Inchaurren eta Intxaurren.

Kanpaina honen ondoren, abizenak senidetuko ahal dira...

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278



ALBAITARITZA
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Jon Maiaren esanetan Zumaiak eman duen musikari internazionalenetakoa izan da Joxe Azarola. Pianojolea eta showmana, sekulako arrakasta izan zuen 1940 eta 1950eko hamarkadetan. Hainbat

urtez ahaztuta egon bada ere, XXI. mende hasiera honetan merezi duen errekonozimendua jaso dezake. Zuekin, zuzen-zuzenean, herriko semea, pianojole elektrikoa, Joxe Azarola!!!

2004ko abenduaren 26ko Argia-n (1.972. zenbakian)
argitaratutako artikulua laburpena

zumaiar bat bro adw aye n

ELIXABETE GARMENDIA



Karidadeko Bentak, atera duen Amore amore diskoari azken puntua jartzeko, Joxe Azarola pianistaren pieza bat berreskuratu du, Aureskua. Lehen diskoan egin zuten Azarolaren aurkezpena, *Jo zak berriz, Joxe kantat*. Izenburuak iradokitzen du pertsonaiaren eitea. Joxe Azarola ez zen Rick-enean egon, baina Euskal Herritik hasi eta Amerikaraino ibili zen piano jole haren antzeko klubetan; ez zen Casablancan atera, baina bai beste film batzuetan. Musika arinean maisu, inprobisatzaile aparta, showmana, bohemioa euskal musikaren historian katebegi galdua.



Azarolaren biografia ez dago inon idatzita. Areago, haren figura lausoturik zegoen, bizirik, soilik, ezagutu zuten batzuen oroimenean eta paper solte batzuetan. Horietako bat iritsi zitzaion eskuetara Inazio Tolosa musikari zumaiarari Zumaiako kultur etxekoen bidez: *Vida Vasca* urtekariak 1944an argitaratutako artikulua baten fotokopia zen. Ramón Salanova kazetari aragoiarrak Joxe Azarolaren soslaia egiten zuen bertan; argazkietako batzuetan Azarola ageri zen showman gisa, esaterako, aulkitik airean salto eginez pianoa jotzen zuen bitartean. Herrian galdezka hasi eta arrastoren bat edo beste topatu zuen: Azarolaren jaiotza agiria Udaletxean, eta Jon Altzibarren lekukotasuna, honen aita, Julian Alzibar, izan baitzen Azarolak Zumaiari zeuzkan etxeen administratzailea. Nahikoa Jon Maiak printzak hartu eta kanta sortzeko. "Oso istorio iradokitzailea zen: musikari handi bat, pianoarekin aitzindaria". Entzun besterik ez dago Aureskua

nola jotzen duen swing erara. Nik imajinatzen nuen Broadwayen adibidez, Xavier Cugatena eta inguruan, eta Samekin parekatu dut: *Jo zak, berriz, Joxe*".

Auñamendi entziklopediak argazki eta guzti aurkezten du Azarola, baina datu apur batzuk besterik ez: Luis Urteagarekin –San Bizenteko organista– eta Pagola maisuarekin ikasi zuela pianoa Donostian; Madrilgo Kontserbatorioan karrera amaierako sari nagusia irabazi zuela 17 urterekin... Salanovak dioenez, sari horrekin kontentzitu zen Peperen aita semeak pianoan zeukala etorkizuna eta ez, berak nahi zuen bezala, banketxean kontulari gisa. Eta horrela, diru kontuak utzi eta lehenengo lana Tolosako Gorriti zinemari izan zuen, pelikula mutuak pianoz laguntzen.

Organoa eta soinu txikia

Laster zabalduko zen Azarolaren sona. Donostiako Euskal Billera elkartearen bere argazki bat dago, Usandizaga eta Sorozabalenaekin buruz buru, hauei bezala omenaldia egin zitzaizkion gerra aurretik. Gazte ageri da Azarola argazkian, baina ordurako sobera ezagutzen zuen Euskal Billerako pianoa.

Aita Gabiriakoa zuen Azarolak, eta harako joera handia hartu zuen gaztetatik. Opor zeukanean, hara joaten zen denboraldiak pasatzera. Gabiriako Txoko etxean, Pilar eta Maritxu Txintxurretak, Pepe Azarolak bidalitako argazkiei begira, astindu dituzte oroitzapenak. Lehenengoa: "Ikara-garritako juergista zen". Eta gero, erretratua orekatze aldera edo: "Oso elizkoia zen, oso. Hona etortzen zenean elizara joan eta organoa jotzen zuen".

Pepe Arzelusek, artean mutikoa bera, behin baino gehiagotan txanda hartu edo eman zion Azarolari Gabiriako elizako organoan. "Jotzen zuen... erregistro guztiak atera-eta...". Arzelusi, Tolosako Santa Mariako Kaperaren organista gaur egun, ez zaio batere kamustu Azarolarekiko mirespena. Elizan organoa astintzen bezala gogoratzen du ostatuan soinu txikia hartu eta kalejirak jotzen, ezer ez eta festa eginez. Madrildik partitura bat bidali zion dedikatu-

Kronologia

1906- Zumaian jaio zen, herriko maisuaren seme. Urteaga Zumaiako musika eskolako maisuarekin hasi zituen ikasketak.

1922- Madrilgo kontserbatorioan piano ikasketak amaitu zituen, eta lehenengo saria lortu zuen.

1926- Tolosako Gorriti antzokian hasi zen lanean, zinema mutuko saioak musikatzeko.

1936- Gerrak aurrera egin ahala, Bilbon zegoen bondardeketan. Atxilotu eta Burgosko Campo de Concentración de San Pedro de Cerdeña-en sartu zuten.

1938 Paris inguruan bizi zen, Tours-en, nahiz eta helbidea Hendaian zuen.

1944- Bartzelonan Odeon diskoetxearekin hainbat disko atera zituen, bai musika klasikoa, bai Duke Ellingtonen "Sophisticated lady", eta Kataluniako jazzeko musika egileen piezak ere bai.

Kontzertuak eman zituen Paris, Bartzelona, Madril eta beste hainbat lekutan.

1949- Mexiko D.F.ko Regis hotelean bizi zen. Lau disko inpresionatu zituela aitortzen zuen, eta Amerika osoan eskaini zituen kontzertu arrakastatsuak: New York, Washington, Dallas, Buenos Aires, Lima, Caracas, Acapulco...

1956- Mexiko hiriburuan hil zen, otsailaren 17an, 50 urte bete baino lehen.

Hil ondoren, New Yorkeko Toreador diskoetxeak hainbat disko publikatu zituen: "Piano loco", "Acuarela española" eta abar. Berak egindako piezak ere baditu tartean: "Campanadas Azaroladas", "Chineando", "Fox lento", "Woogi flamenco" eta Aurrekuaren bertsiotzat swing bat.

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airtoa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi basc
català finnois
francés angles
catalán francés
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



B. Exegarai 2, behea
943 86 27 14

GAZTEEN ERROPA



Azarola ha muerto!!

Jon Maia

... Azarola berpiztu da! oihukatu beharko genuke orain. Datorren urtean 50 urte beteko dira Joxe Azarola hil zela. Eta nor izan zen Joxe Azarola? Behar bada azkenaldian handik edo hemendik allegatuko zen zer edo zer zuen belarrietara. Azarola bai, ez da abizen zumaiarra. Gabiriakoa da. Baina bera hemen jaio zen eta hala zabaldu zuen beti. Gizon harrigarria eta musikari miretsia, abangoardiako piano jolea izan zen, "musika erritmikoan", "musika modernoan" edo "exotikoan" –garaian esaten zuten bezala– punta-puntakoa. Abertzalea eta zumaiarra. Zaharrenek bonben jauziaren hotsa pianoarekin nola imitatzen zuen gogoratzen dute. Espainia aldean lehenengo mailako izarra, formazio eta teknika maila gorenekoa. Gizon alaia, baikorra, jendearekin egoteko dohain berezikoa. Jerry Lee Lewisen aurretik pianoa txikitu izan zuen emanaldietan. Erabateko showmana omen zen: Nire emanaldietan ikuskizuna ziurtatzen dut..., dixit. Washington, Madril, Caracas, Buenos Aires, Bartzelona, Paris, Mexiko, Estoril, Acapulco, Lisboa, Broodway... munduz mundu ibilia, areto, irrati eta telebistetan, arrakasta beroaren aparretan. Aristokraziarentzat eta publiko "txit gorenarentzat"

bezala, kabaretean zein zirkoan berdin egingo zuen. Tabernan zein elizan. Showak ez zuen etenik berarekin. Tolosako zineman hasi zen garaiko zine mutuari musika jartzen, eta azkenean berak joko zuen pelikula barruan, Madrilen, Parisen eta Hollywooden. Ez dago bere musika entzutea bezalakorik Azarola ezagutzeko. Aureskuia swing erara, agur solemnea Clubeko dantzagarri bihurtua entzutekoa da. Bai eta Ravelgo boleroa edo Campanas Azaroladas txinatarra ere. Edo Sant Louiseko bluesa... Eta bere argazkiak? Traje zuria, krokodilo larruzko botak, zinemako izarren pertxa eta begirada, orkestra osoa atzean. Edo begiak gurutzatuta agertzen den beste hori, bere buruari barre eginez... "Hau dek aurpegi gogorra! Zemento de Zumaia!" jartzen du atzean. Bere diskoetatik bi soilik dauzkagu, Acuarela Española eta Piano Loco harrigarria. Biak New Yorken grabatuak eta hil ondoren argitaratuak. Baina badakigu gehiago ere badituela. Ari gara gauzak han eta hemen biltzen, jendea ere etorri zaigu. Datorren urtean 50 urte izango dira Joxe Azarola hil zela eta aitzakia ezin hobea da zerbait egiteko. Baditugu ideia batzuk buruan, ea... Bitartean, Samek zioen bezala, jo zak berriz, Joxe!

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

ta; piezetako bat, Campanas azaroladas izeneko fox-trota eta bestea estilo andaluziarrekoa. Eta eman, eskura eman zion Azarolak Arzelus mutikoari pianistaren curriculumua ondoen jasotzen duen argitalpena.

Agenda moduko bat da, alde batetik 1944ko egutegia dakarrena, eta horrekin tartekatuta, gaur egun artistaren booka deituko litzaiokeena. Aurkezpen gisa, ezarri izan zizkioten kalifikatiboak: El mago del ritmo, El pianista eléctrico, El pianista relámpago, El pianista cuatromanos... Mugaz bi aldeetako antzoki eta Salon de Theetan ibilia zen ordurako. Irratien zerrendan, dozena erdi bat, Unión Radio Madrid-etik hasi eta Radio Bilbao eta San Sebastiáneraino. Diskoak, Bartzelonako Odeon etxean eta Parisen. Eta bukatzeko, zineman izandako parte hartzea: Iquinok zuzendutako "Un enredo de familia" eta "Turbante blanco" pelikuletan, eta, izenbururik zehaztu gabe, Parisko Excelsior Burdeos produktorako zenbait filmetan. Horixe 1944a bitarteko ibilbide profesionala.

Bonba hotsa, pianoz

Ormaiztegiko Kaxildek motor handi baten gainean deskribatzen du Azarola, senarra "lapurtu" eta bi lagunak kostaldera-eta egunpasa joaten ziren garaietan. Eta moto hori azaltzen da gerra hasi zenean ere. Pilar Txintxurretak dio Pepék motoa Gabiriako eliza ondoan jarri eta zarata izugarria aterarazten ziola Española menditik Ormaiztegiara sartzeko ahaleginetan

Teklatuko nota
altuenekin egiten
zuen bonbak
erortzea ateratzen
zuten ziztua: fiiii...

zebiltzan erreketek amorrarazteko. Ormaiztegi eta Gabiria artean zihola erreketek motoaren depositoa tiroz zulatu ote zioten ere kontatzen da.

Gerrako ibilien hariari Jon Altzibar zumaiarrak ematen dio segida. "Beste asko bezala, hura ere -Azarola- goriarekin joan omen zen Bilbora. Han, berak zekiena egiten zuen: pianoa jo. Eta teklatuko nota altuenekin egiten omen zuen bonbek erortzean ateratzen duten ziztua: fiiiiiii... Eta gero nota baxuenak ipurdiarekin joz, brom-brom-brom, bonba lehertzen deneko hotsa".



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Lagun karlista batek, Berrobiko organista zen Angel Aldanondo tolosarrak, egin zituen burubideak Azarola aska zezaten, baina, baldintza bat jarri zioten: Espainiatik alde egitea. Horretan, Parisera jo zuen, eta han bizpahiru urte egingo omen zituen, besteak beste, Radio Parisen pianista gisa jardunez. Antxon Longaron tolosarrak kontatzen du aurrekoa, misterio apur batez, gerra garaiko gorabeherekin sarritan gertatzen den bezala. Longaronek geroxeago ezagutu zuen Azarola, 1941ean, Zaragozan, eta goian aipaturiko Angel Aldanondoren bitartez. “Zaragoza, orduan, kapital garrantzitsua zen, eta kabaret asko zegoen bertan, animadora eta guzti. Giro horretan, bazeukan lana Azarolak”. Longaronek Tolosako Inauterietako piezak, Galtzaundi, Isabelita eta konpainia fox estilora jotzen entzun zionekoa dauka gogoan. “Gizon hark zeukan erritmoaren zentzuarengatik, beltza behar zuen izan”, ebazten du tolosarrak. Agian horregatik ez zuen inolako zalantzarik izan Azarolak Amerikara salto egiteko. Hemen “oso ikusia” zegoela esaten omen zuen, eta halako batean, hartu zuen Mexikorako bidea.

Txapela oroigarri

1949ko azaroaren 12an Mexiko hiritik idatzi zion Pepe Arzelusen amari, esanez “izugarritzko arrakasta” ari zirela izaten. Pluralean mintzatzen zen, izan ere, lehendik lankide zuen Miguel Alegre bateria jole aragoiarrarekin joan zen hara. Lau disko grabatu zituztela ere kontatzen du Azarolak gutun horretan, suerte pixka batekin diru dexente emango ziotenak, eta kexatzeko motiborik ez zutela, “printzeak bezala “ bizi zirela-eta. Hemengo lagunei bidalitako gutun eta argazki dedikatuen bidez jarrai daiteke apur bat Azarolak Amerikan egindako ibilbidea. Estatu Batuetan ibili zen, Dallasen adibidez 1951n. Bera hil eta gero argitaratutako gutxienez hiru disko New Yorken ateratakoak direnez, Toreador etxeak hain zuzen ere, pentsa daiteke bertan grabatuak izango zirela.

Azarolak ez zuen familiarik utzi. Seniderik ere ez, eta hantxe, Mexikon galdu zen bere arrastoa. Mexiko DFko Sanatorio Españolen bisitatu zuen Jon Altzibarren arreba

mojak. Azken orduan pasiotarrek lagundu bide zioten; haiekin adiskidetasun handia zuen lehendik, Gabiriako komentutik. Kontatzen da, hil baino lehen, aitortza egin eta bizikide izan zuen emakume mexikarrarekin ezkonarazi zutela pasiotarrek. Azarola hil eta ez zeru ez lur geratu zenean, emakume hark pianistaren txapela eraman omen zuen berekin oroigarri bakartzat.

Dantza loturako Aureskua

Inazio Tolosa eta Jon Maia txundituta geratu ziren Azarolaren Aureskuarekin. “Aureskua horrela jotzea urte haietan”.

Izan ere, *Acuarela Española* eta *Piano Loco* diskoetan, lehenengoan Música vasca bailable izenburupean, eta bigarrenean berriz *Selecciones clásicas* bailables, jotzen du Azarolak pot-pourri bat, euskal doinu ezagunekin osatua, hasieran *Aureskua* dela. Maiestaterik batere galdu gabe, dantza loturako pieza izugarri dotorea bihurtzen da *Aureskua*



“Gizon hark zeukan erritmoaren zentzuarengatik beltza behar zuen izan”

Azarolaren bertsioan. Eta iradokitzen du, nolabait, nahiz eta “printzipe modura” bizi, herrimina.

Gainerantzean, fox-trotak, bluesak, musika espainola, pieza klasikoak, iturri hain ezberdinetako piezak jotzen ditu Azarolak eta guztiei ematen die bere ukitua: azkarra eta erritmo bizikoa alde batetik, baina baita koloretsua eta adier-

azkorra ere. Miguel Alegrek -diskoetan José Alegrelaguntzen dio beti, oso modu finean, bateriaren isipuak erabiliz batez ere.

Pieza batzuetan, batez ere *Piano Loco* diskoko *Chineando* eta *Bolero* izenekoetan, pelikula mutuei laguntzen zien musika oroitarazten du. Bestalde, disko honetan bertan dago *Campanas azaroladas*, berak konposatutako pieza. Dena den, konposatu baino gehiago bertsioak egin ohi zituen, itxura guztien arabera. Eta horretarako, askotan, herri musika erabiltzen zuen; *Madriken Andre Madalen*, Zaragozan Tolosako inauterietako doinuak eta Euskal Billeran berriz, Donostiako danborradakoak jotzen zituen, elkarte horretako historia jasotzen duen liburuan azaltzen denez

Jose Azarola 'Vida Vasca' aldizkarian



1944. urtean "José Azarola, el más personal intérprete del ritmo moderno" izeneko erreportajea idatzi zuen Ramón Salanova idazleak "Vida Vasca" aldizkarian. Laudorioz betetako artikulua zen, eta argi geratzen zen Azarola oso ezaguna zela gerraosteko urte haietan.

Oso pertsona alaitzat jotzen zuen Azarola. Irakurtzea besterik ez dago ondorengo pasarteak: *"El desbordante optimismo de José Azarola es casi tan popular, por no decir más, que su propio aplaudidísimo estilo pianístico. Azarola, de técnica pianística envidiable, tiene la gran virtud de haber transido e iluminado su arte con una simpatía personal sin límites. En Azarola es, ante todo, el hombre; y, como una faceta segunda, el pianista"*.

Euskalduna zen Azarola, horren zalantzarik ez dago. Hala gogoratzen zuen Salanovak: *"Azarola es vasco. Se lo conocemos enseguida aún viéndole en Zaragoza o en Madrid. Su boina es la prenda característica que corona siempre su silueta. Y también es vasca esa textura física que le permite llevar el piano de una sola mano hasta el sitio preciso en que él quiere usarlo y que se formó en el Norte manejando el hacha, la moto o el coche, por sentir el contacto agradable con la fuerza o con la velocidad y la facultad de ingerir sin consecuencias treinta 'potes' de cerveza y otros tantos 'chiquitos'"*. Hala ere, bere izaera hegoaldekoa zela zioen Salanovak (*"Pero su temperamento es un temperamento exuberante más bien meridional"*), eta horrek, idazlearen ustez, gauzak zail-

du egin zizkion musika klasikoa jotzeko (*"Azarola, aún hecho ya un virtuoso no ha podido ser un pianista a lo clásico porque su temperamento desbordante no lo ha permitido"*). Horrek, Salanovaren ustez, musika modernoko aitzindaria izatera bultzatu zuen Azarola: *"Una vez adquirido el dominio de lo que de oficio tiene el piano, derivó forzosamente hacia el ritmo moderno. Creemos sinceramente que de no existir todavía, sería ésta una modalidad musical introducida intuitivamente por Azarola"*.

Gaztetatik eman zuen aditzera bere musika Azarolak. Hasieran Frantzia egin zuen lan. Hala zioen Salanovak: *"Pronto advierten y reconocen cuantos le oyen su mérito excepcional y es contratado por el Casino Municipal de Biarritz, y por el Gran Teatro de Burdeos. Acompaña al famoso acordeonista Emile Vacher en una gira apoteósica por varias ciudades francesas, recalca en las radios parisinas alternando con celebradas actuaciones en Theatre A. B. C. Casino de París y Petit Casino, principalmente, impresiona discos Odeón, y hasta la Excelsior le llama para hacerle intervenir en una película"*. Baina arrakasta handiena guda ondorengo Espainian eta Portugalen izan zituen; Espainian: *"De su éxito y de su popularidad da idea el hecho de que es larga la lista de entidades beneméritas o sociedades de recreo que le tienen por socio honorario. Algunas de sus composiciones originales han constituido la palpitante actualidad de emisoras y salones y sus discos han obtenido un franco éxito de venta"*; Portugalen, berriz, hona hemen arrakasta: *"Es muy interesante su actuación el pasado invierno en el Wonder Bar del Casino de Estoril, en la maravillosa Costa do Sol. Su actuación allí, ha sido uno de los éxitos más rotundos de su vida artística, y Azarola se vio solicitado reiteradamente en fiestas oficiales de embajadas, grandes galas, etc."*.

Garai hartan milioi bat pezetatan zeuden aseguruak Azarolaren behatzak, eta badirudi, Salanovaren ustez, gutxi zela, izan ere, pianojole birtuosotzat jotzen zuen: *"Cuando Azarola toca, se compenentran de tal modo el piano y él, que el instrumento, más que formado de materia inerte, parece vibrar como si fuera parte integrante del propio artista"*.

*** Euskaratzean idazkera estiloak duen grazia galduko litzatekeela uste dugu. Horregatik jatorrizko gaztelania mantendu dugu artikuluko pasarteetan.**

samiño eta isaspi: industriak basoak nagusitzen

XABIER ARANGUREN

Urola Erdia eta Goierri artean kokatzen den mendu multzo honek aldaketa sakonak ezagutu ditu. Bere altzoan dauden soro eta bordak bakandu egin dira koniferen poderoz, baso industrialak ditugu bat egin da Azkoitia eta Zumarragako industri guneeekin.

Azkoitia herritik aterako gara Martirietako bidegurutzearen bila. Igotzen hasi bezain laster, Azkoitia eta bere inguruko ikuspegi agerian geldituko da Izarraitz mendikate sendoaren azpian. Urola Erdiko eskualdearen irudi ikusgarriena osatzen du kareharrizko hormatzar horrek.

Asfaltoak Martirietara ekarri gaitu. Auzoan iturria eta atsendenlekua ditugu zain. Makina bat erromeri egin izan dira bertan trikitiaren hauspoekin girotuta. Urola Erdia izan da trikitaliaren harrobi ospetsuenetakoa. Arrietamendi auzunean hainbat baserri aurkituko ditugu han-hemenka. Guk ezkerretara joko dugu pistatik gora. Kilometro bat egin eta Artzabalko tumulua izango dugu aurrean. Puntu honetan ere ikuspegi dotorea dugu: Martirieta azpian, beste aldean Irukurutzeta eta Elosumendi mendilerroa ageri zaizkigu.

Artzabaletik Samiño aldera zuzendu eta gasbidearekin egingo dugu topo. Iparrak hegoari baliabideak lapurtzen dizkio eta horra hor adibide bat. Mendiari eta paisaiari eragindako kaltea ere begi bistakoa da. Gailurrera hurbiltzen ari gara belardi eta soro artean. Azken metroak atseginak dira ikuspegiaren eta gailur usainaren eraginez. Samiño gainetik Azpeitia eta Azkoitiko parajeak ditugu bailaran; Ernio eta Izarraitz nagusitzen zerumugan. Samiñok bi gailur ditu, bata iparrean eta bestea hegoan. Bien artean aterpe bat dago, "Iruarrietako aterpea", egokia denok errespetatzen eta txu-



ibilbideak

kuntzen dugun bitartean. Samiño bigarren gailurra dugu altuena eta bertan hiru udalerrri batzen dira: Azpeitia, Azkoitia eta Zumarraga. Oraingo honetan, ikuspegiak hegoaldera zuzentzen dira Aizkorri eta Aralarko mendilerroetara. Durangoaldetik Anbotok eta Udalatxek ere erakusten dituzten beren agin zorrotzak Irimo eta Irukurutzeta artean. Aratz erreka bailarara begira, industri basoak dira nagusi lehen soro, harizti eta pagadi ziren lekuetan.

Aurrera segitzeko asmoarekin maldan behera hasiko gara gailurra atzean utzita. Ditzosozko gasbidea alboan dugu, gailurrez gailur, bortxa eta bortxa. Iruarrieta II tumuluan dau-

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA


Basadi auzategia, 10

Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



Erreferentziak

Azkoitia: 0 km.
 Martirieta: 4 km.
 Samiño: 8,5 km.
 Pagotxeta: 10,5 km.
 Isaspi: 13 km.
 Antioko eliza: 17 km.
 Zumarraga: 18,5 km.

Luzera: 18,5 km.
 Igo beharrekoa: 1.000 m.
 Iraupena: 7-8 ordu.

kagu behealdean. Aranzadiko ikerlariei esker salbu geratu dira hau eta beste batzuk. Dirudienez, gasbidearen teknologik puntak ez ditu mendi puntak ere errespetatzen. Indioen lur bortxatu hauetan jarraituko dugu, gainez gain. Pagobakarreko tumuluak adierazten digu Amalur sakratuaren sinismena antzinatik etorri arren ez dela errotu gure gizarte "tradizionalista". Aurrerago, Pagotxetako lepoan gaude Samiño eta Isaspi artean. Mendilepo nagusia erromeri gune ospetsua lehen. San Kristobal auzotik Zumarragara ibilbidea jarraitu edo laburtzeko aukera da orain.

Isaspira igotzeko berriro langa pasa eta mendi bizkarretik joan behar da gailurra zapaldu arte. Tartean, Otsolarreko tumulua dugu pinu artean seinalatuta. Azkena izango da gaurkoz. Isaspik 973 metro inguru ditu eta inguru hauetako gailur nagusia da. Beste gailur askotan bezala, gurutze handi bat eta oroigarriak daude tontorrean. Mendi multzo honetan ere zentral eoliko bat ipintzeko asmoa eduki zuten, baina plangintzaren aurkako alegazioek momentuz lortu dute geldiaraztea. Noiz arte?

Jaitsiera ekialdeko mendi hegaletik egingo dugu, otadietatik, txabolatxo batera heldu arte. Gero, mendi magaletik doan bidezidorretik joango gara mendia inguratzen duen beste mendi lepo batera heldu arte. Hemen marra zuri-gorriekin egingo dugu topo. Motxutegi txikiko txabolaren ondotik pasatu eta Beloki eta Izazperen arteko lepora helduko gara. Porlanezko bidetik Zumarragara helduko gara, Antioko elizatik pasa eta errepeidea alde batera utzita, margotutako marrak erdigunera eramaten gaituzte Zumarragako karriketara.

ekin
 TELEKOMUNIKAZIOAK

Instalazio elektrikoak
 Telekomunikazioak
 Informatika
 Internet

DIGITAL+ CANAL+

INMOBILIARIA

Amara

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

amaiako plaza, 2
 Tel. 943 143278

Maita
 ileapaindegia

TXALAPARTA
 O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
 Tel. 943 143089

igeriketa behar-beharrezko kirola

Gaur egungo gizartean, igeriketa maila handi batean sartzen ari da bakoitzaren bizitzan. Betidanik ospe handia izan duen kirola da, batik bat kirol oso konpletoa delako (hankak, besoak, bizkarra... lantzen ditu), eta ez duelako inpakturik, aerobikoa delako eta erresistentzia handitzen laguntzen duelako.

IZASKUN URBIETA

Bestalde, bizi kalitatea hobetzea dakar eta gero eta beharrezkoagoa da, gehienbat umeen kasuan. Ondorioz, igeriketa ikastaroak ia jaiotzatik hasten dira ematen eta hau izan da bertako irakasle batek kontatu diguna.

Kirola egitea ona dela denok dakigu, baina zein kirolek du lehentasuna? Txiki-txikitatik erakusten zaie umeei futboleak, eskubaloian eta pilotan. Igeriketa bigarren mailan zegoen, baina jadanik, indarra hartzen ari da. Irakasleak azpimarratu digunez, igeri egiten jakitea oso garrantzitsua da, batez ere hondartzan edo igerilekuan ezustekorik ez gertatzeko, baina kostako herri batean ezinbestekoa da. Horregatik, ikastaro hauek gero eta

lehenago hasten dira ematen eta Zumaian 3 talde handitan banatzen dira.

Lehenengo taldean 6 hilabetetik 3 urtera bitarteko haurrak daude. Talde honen barnean bi zati bereizten dituzte: alde batetik, 6 hilabetetik 18 hilabetera; bestetik, 18 hilabetetik 3 urtetara. Haur hauek asteen 2 aldiz joaten dira igerileku txikira. Igerileku txikia beroago jartzen dute eta ikastaroaren berezitasun nagusia da gurasoekin praktikatzeko delako. Aipatzekoa da, halaber, ikastaro honetara etortzen diren gehienak 6 hilabetetik 18 hilabete arteko haurrak direla. Aditu askok diotenez, 18 hilabetetik 3 urte arteko adin tarte hori ez da oso egokia umea igerilekura eramateko. Gainera,

Zumaian arazo txiki bat ere badago: igerilekuak sakonera txikia du eta haurrak berehala konturatzen dira hondoa ukitzen dutela. Horren ondorioz, ur azpian sartzen saiatuz gero, ez dute nahi izaten eta negar gehiago egiten dute derrigortuz gero. Ikastaro honen helburua da haurrak urarekin kontaktuan jartzea. Horretarako, urarekin busti eta goxatzen zaie, aurpegia ere bustitzen zaie... Azken batean, haurrekin jolastea eta disfrutatzea da. Horretan laguntzeko, zenbait material erabiltzen dituzte. Adibidez, goma aparrezko xaflak, forma eta kolore desberdinetakoak. Xafla hauek oso irris-takorak izaten dira eta txirrista moduan erabiltzen dituzte, bertatik jaisteko. Bestalde, pilotak, jostailuak eta urez-



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Sokoruma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



tailu modukoak ere badituzte, jolasteko.

Bigarren talde nagusian sartzeko umeak 3 urte beteta izan behar ditu. Maila bakoitzean helburu batzuk zehazturik daude eta helburuak bete ahala hurrengo mailara pasatzen dira. Horrenbestez, hasieran taldeak adinaren arabera banatzen dira, baina geroago gaitasunaren arabera egiten dute mailetan gora, adina kontuan hartu gabe. Betiere saiatzen dira

taldeak 6 pertsonaz edo gutxiagoz osatzen, horrela errazagoa baita lan egitea beraiekin. Hau da, saiatzen dira indibidualtasuna mantentzen eta egokitzen.

Umeekin urrats hauek egiten dira

Hasieran, 2-3 egunetan, igerileku txiki-ira joaten dira, urarekin ohitzeko (igerilekuan sartu, uretan ibili, aurpegia busti, burua uretan sartzen ikasi...; azkeneko hori da batez ere garrantzit-

sua, ume askori izugarri kostatzen baitzaie, eta ezinbestekoa da igeri ikasteko eta batez ere teknika lantzerako garaian);

Horren ondoren, flotazioa eta propultsioa ikasten hasten dira igerileku handian (adibidez, flotatzen erakusten zaie bai goraka, beheraka, kizkurtuta, hondoratzen... Hasieran igerileku txikian uztaiak jasotzen, irakaslearen hanka azpitik pasatzen...); horrela, pixkanaka, beldurra kentzen hasten

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira

garabidun kamioia baskulagaria
garabia: 15m-16m.

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 943 557 189 / 655 706 557
Izurtari, 5 2/A (Zumain) • Aitzpiligorta, 16 F (Mondrón)

gofi
haur jantziak

Amaiaiko plaza z/g Tel. 943 860959

dira eta hasieran igeri bakoitzak ahal duen moduan egiten du (gehienbat txakurrek bezala). Irakasleek flotatzen, burua sartzen, arnasten eta abar erakusten diete, eta, beraz, ateratzen zaien moduan egiten dute igeri.

Horren ondoren, teknika erakusten zaie. Horretarako zenbait material erabiltzen dituzte. Adibidez, gerrikoak (2 motatakoak), flotatzen laguntzeko; taulak, teknika erakusteko; pulboiek ere flotatzen laguntzen dute; xaflak eta "palote" antzeko makilak (azken horiek flotatzeko ez ezik, dibertitzeko ere balio dute: adibidez, zaldia baldin bazen bezala ibiliz, bizikleta moduan, eserita...); azken finean, etekin handia atera ahal zaie.

Ume hauek astean bitan aritzen dira, ordu erdiz. Talde honi dagokionez, esan beharra dago 2 ume dituztela minusbaliotasunekin eta banaka erakusten dietela.

Azkeneko talde nagusia helduena da. Hauen pausoak umeenak beza-



lakoak dira. Hau da, hasieran igerileku txikira eramaten dituzte oinarrizko gauzak ikas ditzaten. Ondoren handira joaten dira eta umeen ikastaroetako pauso berdinak egiten dituzte. Esaterako: lehenengo tranpolinetik salto egin gabe, eserita sartu igerilekuan eta ahalegindu hankak mugitzen zerbait helduta gerrikoa jantzita. Ondoren metro batzuk egiten saiatu, beste egun batean tranpolinetik salto egin, atzera igeri egiten ikasi eta abar. Irakasleak esan digunez, askotan zailagoa izaten da helduei igeri egiten erakustea, beldur handiagorekin etortzen baitira, beharbada bizitzan

gertatu zaien zerbaitengatik edo fisikoki ez daudelako oso ondo. Baina, hala ere, gehienek ikasi egiten omen dute.

Ikastaroez gain, goi mailako igeriketa izeneko talde bat ere badago. Bertan 7 urtetik aurrerako umeak daude. Hemen teknika askoz ere gehiago lantzen da eta asteko helburu jakin batzuk eskatzen zaizkie. Hau da, maila jakin bat izan behar dute.

Bukatzeko, esan dezagun igeriketa hezkuntzara ere iritsi dela. Hots, eskolek ikusi dutela igeri egiten jakitea behar-beharrezkoa dela eta, noski, onuragarria eta interesgarria ere bai. Horren ondorioz, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. maila arteko haurrak joaten dira igerilekura egunero. Zumaiako eskoletatik ez ezik, Oikia, Zestoa, Aizarna eta Aizarnazabaletik ere bai.

Beraz, argi ikusten da igeri egitea merezi duela eta onuragarria dela; hori bai, irakasleak ongi azpimarratu digun bezala, derrigortuta ez denean.

ILEAPAINDEGIA

TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



LIBRURU DENA

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

hamar urte pasa al dira?



egin zitzaion elkarrizketa 10. zenbakian. Bertan zioenez, "kirol kazetari-tzan, emakume izateagatik demonstra-tu egin behar duzu badakizula horretaz". Horretaz gain, txirringularitza asko gustatzen zitzaion kazetaria "bitxo raro" bezala begiratzen zutela ere esaten zuten. Ez dugu uste orain hala gertatzen denik. Edo bai?

Herriko mojarrei eskaini zitzairen erreportajea. Baleikeren zenbaki hartan. Garai hartan 12 bizi ziren komentuan eta ardo goxoa eta pastak dastatuz aritu ziren aldizkari-koekin hizketan. Eguneroko bizitzaz eta etorkizunaz hitz egiten zuten, baita Elizaren egoeraz ere. Juan Paulo II.a gai batzuetan atzerakoitzat jotzen zuten; gai sozialetan, berriz, oso irekia zela zioten. Hondarribiko etxe berrira mugituko dira urte batzuk barru bizirik geratzen diren mojak. Zer gertatuko ote da komentuarrekin?

Kirolen atalean, Mariano Sanchez korrikalariarekin hitz egiten zen. "Korrika egitea beste edozein droga bezalakoa da", zioen Marianok, eta adikzio honetatik desengantatzea ez omen da erraza. Hala dirudi, gaur egun ere hor segitzen baitu korrika egiten. Punta-puntan gainera. Ikusi besterik ez dago zer denbora lortu duen azken herri lasterketan.

Euskal underground musikari eskaintzen zitzairen tarte 1995eko martxoan. Lord Sickness, El Inquilino Comunista eta Los Clavos bezalako taldeak musikazale ugariaren ahotan ziren urte haietan. Orain, zoritxarez, ahaztu ditugu, baina garai hura bizi izan genuenok oraindik ere zirrara sentitzen dugu beraien musika entzunda.

Ohiko atalak ere baziren aldizkarian. Antimilitarismoan, Juan Luis Blancori egindako epaiketa zen hizpide; sexualitatean, berriz, zakilaren tamaina.

Ez dakit zuek, baina zenbaki hau begiratura ez dakit denbora honetan gauzak asko aldatu diren. Ziur al zaudete 10 urte pasa direla?

Zein azkar doan urtea! Dagoeneko martxoan sartu gara. Konturatu gabe urtezaharreko mahatsak jaten izango gara laster. Beno, ez dezagun abiadura handia hartu eta begira dezagun 1995eko martxoko Baleikeren zerekin egiten dugun topo.

Kirol portuaren gaia zen berriro hizpide. Honen aurka herriko eta kanpoko hainbat talde eta pertsonak aurkeztutako 175 alegazioei buruz idazten zen. Zumaia Bizirik taldekoek adierazten zutenez, "proiektu honekin oso loturik dagoen Zumaia herri turistiko eta bigarren etxebizitzakoa izatearen aurka jarri dira alegazio gehienak". Ingurugiroaren Gaietako Eraginaren Ebaluaketa izan zen gehien aztertu zen alderdia. Azti erakundeak egin zuen ebaluaketa eta talde batzuek datuen partzialitatea eta zehaztasun falta salatzen zuten. Dakigun bezala, auziak luzera jo zuten.

Aurten bezala, emakume eguna ospatzen zen martxoaren 8an. Kazetariak zioenez, "nabaria da martxoaren 8ak ez duela inondik inora bere esanahia galdu eta emakumearen arazok hor dirautela". Hauxe bera idatzi daiteke gaur bertan.

Euskadi Irratiko lankide dugun Arritxu Iribar kazetariari

JATETXEA
LUBAKI
 Baselari Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



"Ni ikusita natxiok Zubi Txikitik hasi eta Pulporaino dana belako barkoz betia"

ABELIN LINAZISORO

Joxe Manuel eta Benito Manterola, bi anaia bikiak eta aurpegiz ia berdinak, Zumaian oso ezagunak ziren. Gure haurtzaro garaian, 1940eko hamarkadan, Maitena zineko atezainak ziren. Moilan, Etxabe IV tabernaren aldamenean zegoen zine zahar honek bi ate zeuzkan barrura sartzeko, ate handia eskaileretatik gora oilo-tokira joateko eta ate txikia beheko eserlekuetara joateko. Gora joaten ginen haurrak kontrolatzeko Benito egoten zen eta beheko atean Joxe Manuel. Marinela eta abertzale familiakoak. Gero jakingo genuen gerra garaian Euskal Gobernuak ertzainak izan zirela.

Noiz jaio zinen eta zuen aittak zen lan egiten zuen?

1911koa nauk eta gure aittak itsasoan eiten zian lan. Hemendik hirautilika hartu eta Gijona, Galizira... Eta bueltakoan ikatza ekarri. Marinela huan. Primer marinero kategorikoa. Barkua Bidasorotarren San Telmo huan. Belako barkua. Zumaira kanpotik, Pasaiatik-eta, baporeak etortzen ituan, baina

hamen dana bela ibiltzen huan. Ni ikusita natxiok Zubi Txikitik hasi eta Pulporaino dana belako barkoz betia. Moila oangoa baino estuago huan eta urak oangoak baino haundixo. Han ibiltzen



gitxuan gu umetan moilan gatzik gabeko ogi bila. Ogixa gatzakin segituan gogortzen dek, ba, eta Asturiastikan bueltan aitta etortzen zanian, jo!, hark ekarritako ogixa pastela bezelakoa izaten huan! Hura etxera noiz etorriko kontuak ateratzen ibiltzen gitxuan: Gaur etorriko dek, bixar dala etortzekoa, Avilésen dabela, handik erten dutela, ez dakit non dabela eta handik honea etortzeko bost egun

behar dittuela... Baina hego-haizeak harrapatzen zunian, andadios!, egun batian Zumaixan! Gijondik erten, poparian jarri, eta bale. Aldrebesekoa tokatzen zanian, izorrai, lau edo bost egun ailegatu ezinik. Bermeon-eta sartzen ituan-eta babes bila. Hai-zia nola zeon, hala ibiltzen ituan haixek. Patroia Eustakio Arrinda huan. San Telmo Kalekua. Hemen gure behian bizi ituan.

Eskolan non ibili zineten?

Tintuxenean. Hura huan gure maistra. Eta komunixo haundi-za eiten giñunian maixuetara. Mari kalera. Alondeixaren goixan zeona. Lanian hasita gero ere, hantxe, gabeko eskolan. Baina juerga besterik ez ginien

eiten. Tintuxenean dotrina asko eta arimetika pixkat ikasi ginien. Handik aurrera, liburuak, manuskrituak, numeroak... Hoixek danak ikasi behar ituan eta danak gabian. Eta badakik, guk 8-10 ordu lan egin ondoren, ikaste-gogo haundirik ez eta jolasian.

Mekaniko hasi al zinen lanean?

Ez. Zapatero. Benito anaixa hasi huan zapatero eta amak ni ere harekin haste-

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Malaur

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

ko esan zian. Xanti zapateronian. Baina nik ez nian gustoko zapatero izatea eta alde egin nian. Xantik amari ematen zioan dirua. Guri ez.

Zenbat urterekin hasi zineten, ba, lanean?

Komunixo haundixa ein eta segituan. 11 urtekin-edo. Solfako kalia hasi gittuan, Zapateixa hor zian eta beste aldian denda. Gero zapateixa erdiko kalia jarri zian eta nik orduan alde ein nian. Han Jontxuk eta Benitok eiten zien lan. Alde ein nun egun hartan Xantik: Non da Joxemanuel? Besteak: Ez da etorri. Eta Xantik: Nola? Nik ekarriko diat hura! Bialdu dittik Benito eta Jontxu nire bila eta ni Bonbilon ixkutututa. Haixek, Fiii!, Zubi Txikitik txistuka. Eta nik: Zeeer! Etortzekooo!, haixek. Bai, zea! Zapata berrixak haixek eiten zitien, baina zaharren josturak, soro erdixak, dana nik ein behar izaten nian. Jota leher-tu arte. Afaldu eta lanera. Eta ni betiko hor sartuta? Itxian esan nian eta gure amak: Nora jun nahi dek, ba? Nahi dezun lekura, nik. Karmelo Unanuenea eraman niñuen. Gure aittak bazian amastadia Karmelon aittakin, hau alonderoa huan, eta, eraman tailerrera mutila, esan zioan gure aittari. Nik mekaniko nahi det esan nitxuan Karmelori, eta honek: Oain mekanikan bazeok lan pixkat, baina fundizixuan lan puskat zeukat. Han hilabete-edo eintzak eta gero

ikusiko diau. Zea, gaur arte. Fundizixuan betiko. Han segi nian gerra arte.

Laburtuz, orduan, Tintuxenean 11 urte arte. 14 urte arte gaueko eskolan eta zapateixan, eta aurrerantzean Karmelonean.



“Ur haundira zanbuila ein, igeri ein, eta gero hondotik, sonda haundixa zeon lekutik, hari koskor bat atera behar huan.”

Tintuxenean, muskira daxolaka zebiltzan umeekin batera ibili gitxuan. Guk amastadia baginien Altzirrinekuekin (Altzirri Pototo Axuntxion Tintuxaren senarra zen) eta Benito eta ni ondo ikusiak gibeztian. Altzirrik hiru arreba zitian Donostira ezkondata. Batek Dana Ona taberna zian eta bestea Faustino Pastorrekin zeon ezkondata. Hau mendigoizale onenetakoa huan. Gerran ihes ein zuna. Ez huan gehixo etorri. Gure aitta hil zanian ixkutuan etorri huan gure etxera eta hantxe Frantzixan hil huan bera gero. Guri ein ziuen ba! Eskola txikitik lanera! Karmelonean 5,30ak arte eiten ginien lan. Gero, 6,30ak arte eta primaberan, barko asko eiteko zibenian, 7,30ak arte. Gaueko eskola 7,30atik 9ak arte, baina nahi giñunian juten gitxuan. Esteban Make-tua, Angel Aperribai, Auguston-eta anai-xa eta hauekin juntatzen baginan, joe!, edade txarrenean gitxuan, ba, eta orrua eta marrua ibiltzen ginien! Egundatien eman ziguk jo aldixak eta, hi! hau esango zioagu maixuari! Bu-e-nas no-ches. Batek bu, bestiak, u, bestiak nas, eta horrela. Esan baxeu, esan xe. Maixuak hartu zian makila eta gu saltaka batian bakoitza bere pupitrera! Eta hark: Un cristiano no se porta así! Eskola erderazkoa huan eta hura zeharo elizakua huan. Don Bidalen aitta. (Don Vidal parrokiako erretorea izan zen gerra ondorenean) Kriston sermoiak botatzen zitian. Eleizakoak baino haundixo. Ser-moiak bai, baina eskola asko ez. Ni Don



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

Tiburtziona (Julio Beobideren aita) bialdu nahi izan niñun amak. Honek bere itxian partikular ematen zian eskola, baina bi gitxuan, eta... Benitokin zer egin? Nik bixontzako dirurik ez zeukat, esan zian amak. Eskola eerra ikasi besterik ez eta... lanera.

Garai hartan ere igerian umetan ikasiko zenuten, ezta?

Bai. Arranplan. Eta alternatiba hartzeko arranpla kanpoan eiten ginien igeri. Arranplatik moilara etorri eta handik salto ein behar huan. Alternatiba, igerixan banekigula ikusteko huan. Hala deitzen gitxuan behitzat. Ur haundira zanbuila ein, igeri ein, eta gero hondotik, sonda haundixa zeon lekutik, harri koskor bat atera behar huan. Ez zeoan arnasean irabaziko zianik! Egun batian beraneante batek arranpla bukatu eta paol bidia hasten den toki parean pezeta bat bota zian. Plemaa zeoan, maria bizixak eta sonda haundixa. Eta beraneanteak: El que llegue hasta el fondo tendrá un gran premio! Pezeta! Joe! Pezeta urrutira bota zian gainera. Benito, Gillermo Amas eta danok zai. Martinez Kleiser-en andria eta hauek begira. Ein diagu salto. Neuk atera nian. Ondo kostata! Gero, sekretaxuak esan zian: Igeri eitea-eta ondo zeok, baina heure burua hainbeste estutu gabe. Etzak horrelakorik ein gehixo. Pezeta danon artian gastatu ginien.



*“Baina neguan,
denboraliakin,
trumoiakin-eta triste...
Zorra ein behar.
Zapata zaharrakin ibili
behar. Hala huan
gauza orduan.”*

Itzungo hondartzara-eta joaten al zineten?

Itzuner a bai, baina Santixora gutxi. Zuloagaren etxea zeon alde hartara ein behar huan, Santixo oso irekia huan, korriente haundixak eta itsaso haundixakin-eta oso txarra. Ez zikun Santixo gustatzen. Gu igerian, arranplan, Zubi Txikixan eta Itzunen. Eta hemen beti San Telmo aldian, ur haundixo eoten huan-eta. Ez zekiagu zeatikan, baina gu beti soka inguruan ibiltzen gitxuan. Bidasorok jartzen zun soka inguruan. Eta gero... sagar lapurretara. Meriendatzeko txokolatia eta ogixa izaten ginien. Txokolate ontza bat. Txokolatea zegoenian, jakina. Eta igeri garaixan, sagar lapurretara! Ardantzara juten gitxuan, baina han txakurra botatzen ziguen eta... Arrukale aldera. Xarrondo aldera ere bai, baina han ere txakurra askotan eta azkenian estazixo gainera juten gitxuan. Luakixeta ere bai. Luakixetan, urruti, ixa Bitarte baserri parian, soua gitxikan. Amarekin hara jun behar izaten nian. Amari laguntzera. Soro haundixa huan, artuakin-eta. Eta hamengo soua, Zelaiako bidian zeon sou txikixa, neuk manejatzen nian. Patata, porrua... Baatza huan. Nei ilarra ez zikan gustatzen eta aittak mahaixan belarrira: Joxe Manuel, jan ezak, eerra zio-eta! Baina nik ezin jan. Ixa botaka. Aittak berriro: Jan ezak, motel, izugarri eerrak zibek-eta. Hainbeste lan kosta zak eta jan ezak. Ez zian errietikan ein ilarrak neuk ein nittulako. Aitta bea bai,

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051



**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUA**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

amorrata huan. Ilarrari arrautza botatzen zioan-eta. Hurrengo ilar sasoiari, urte betera, gure aitta etorri dek eta berriz ere bere plateran arrautza jarri zian. Nik ezta kasuikan ere. Hark nei: Hi, non da ilarra? Ni ixilik. Jun dek bila soura eta... ilarra falta! Nik ezta ipini ere. Hura egurra eman zidana! Esku haundi haixekin! Nik ihesi eiten nian, baina alperrik. Amakin, baba, artua-eta jartzen ginien. Haraino oinez juten gittuan, pentsa ezak! Gure soua azken luakixa huan. Itturri bat ere hantxe zean. Hara goizetik jun behar izaten huan eta gero ama bazkaixakin etortzen huan. Aittaren jornalakin bakarrik bizi gittuan-eta. Karmelokin hasi nintzianian ere, zer irabazten nian, ba? Bi errial. Albarketentzat ere ez. Aittak-eta itsasotikan biaje ona bazuen, ondo. Etorri, bere egunak Zumaixan ein eta ondo. Baina denboralia tokatzen bazan... Gure

amak bere lagunei: Hau jun den, berriro zorra ein diñau. Amak eskola ez zian, baina hark paperian zerbait markatzen zian, eta ondo zekian nola zebilen etxe-ko ekonomia. Bazekian noiztik zeon zorretan eta nori zor zion. Bere lagunei-eta: Han zor dinat, beste hartan ere bai, eta honenbeste. Zortzi egun baino lehenon hamen egon behar din gure gizonak, bestela akabo. Hamen desgarka ein eta

beste karga bat hartu eta juteko, jakina. Hila betean karga bakarra ein ezker, izarrai. Marinel haixek ez zien jornalik. Biaje-ko honenbeste eta kito.

Ikatza etxeetako ekartzen al zuten?

Ikatza aparte hiru klasekoa ekartzen zien. Bat, altos hornosetako, bestea, gaila eta eerra, etxeetako eta beste bat herrementeentzeko. Udan-eta, ondo ibiltzen zianian, dirua juxtu ailegatzeko



zikuari gure amari. Baina neguan, denboraliakin, trumoiakin-eta... triste. Zorra ein behar. Zapata zaharrakin ibili behar. Hala huan gauza orduan.

Zuek jolasean-eta non ibiltzen zintzen?

Zubiaurre kalia (Orain San Telmo). San Telmon ez sartu hango matoiak gu gitxuan-eta. Kale Berrikoekin

(Mari kalea) eukitzen gitxizkien bronkak! Joe! Hamaika hartu zian Juan Mari Antiak! Beti zimitaxuan haserraten gitxuan. Zimitaxua beaixena zala. Han inguruan beste frontoirik ez zean, ba, eta hantxe hasten gitxuan borrokan. Haixek Mari kalera sartzen ittuan eta sakristitik honeantz daon koskan, eleizako paetaren kontra ixkututzen ittuan. Ai iñuxentiak! Guk ezin ikusi izaten ginien han zaben edo non zaben. Baina jakiten ginien non eoten zian. Harri pila hartu eta elizako paretaren kontra gora botatzen ginien. Paretan bota ein eta haixen gainera eroitzen ittuan. Hasiera batian, San Telmo aldera etortzen hasi ittuan eta gu Karmeloneko karka zaharrian ixkututzen gittuan eta handik harrika ein. Eta haixek: Ai ama! Ai ama! Lezi-xua ikasi zien eta gero Mari kalean ixkututzen ittuan. Salbatuta zibela uste zien,

baina alperrik. Harrixakin pareta jo eta behera. Gero, gerra garaixan, Juan Mari eta hauek detenitu eta kartzelara eramane zitien. Eta gu Bilbon bixita eitera jun gitxuan. Benito eta ni orduan ertzainak gitxuan eta zumaiarrak ikustera jun gitxuan. Zer moduz zauden-eta jakiteko. Eta lehenbizi galdetu giñuna hoixe izan huan. Ea ondo zeuden.

jarraituko du...

Tapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZEMALIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

STAIOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

CD-a kalean!



HAIZE GALARRAGA

Itakaren autoekoiztutako lehen CDa eskuartean dudan bitartean taldekideren baten lehen urrats musikalak datozkit burura. Nola aldatu diren, Beheko Plazan kirol portuaren aurkako kankak jotzen zituzten garai haietatik. CDa, lehen entzunadiaz indiferentzia sortzen ez duen horietakoa da. Hasi bezain laster entzulearen belarriak bereganatu eta letra jakin gabe burua gora eta behera mugituz kanta abesaratzen duen horietakoa da. Ondo egindako lanaren zirrarra, gustura, bai soinu aldetik eta bai abestiaren osotasunaren aldetik. Lan honek ez du inongo inbidiarik izan behar merkatuko beste edozein diskorena, dendetan eros daitezkeen disko askok baino soinu hobea baitu. Zorionak eman beharko dizkiogu Mikel Kazalisi, bere Fidelena estudioari horrelako probetxua atera ahal izan diolako, ez baita erraza Itakak duen estudioko kontudentzia lortzea.

Ahotsak harritu nau gehien.

Zer esan dezakegu abeslariak...



Aitorrez... Jonathan Davis, Chino Moreno edota Max Cavalerataz gogoratzen zen kanoa baten gainean Urolako ur koipetsuak zeharkatzen zituen bitartean, azkenean eskola ona

duenak, ekinaz, ezdarriaren teknika izaera propioarekin menperatzen duela frogatuz. Teknikaren barruan, garrasi latzenetik melodia hunkigarrienaren bitartean dabil inolako konplexurik gabe. Laguntza bezala, Ixkiñako Ibonen oihu karakteristikoek ñabardura guturala jartzen dute abestiaren batean.

Baina hau ez da death disko bat. Azkenaldian hemen inguruan dabilen stoner joerak nabarmen eragin ditu, baita honen aurrekari izan zen Hondardariko martxak ere, eta ez naiz alardeko txirulez ari. Esklusiba bezala, zuzeneko emanaldietarako Dut-en bertsio bat prestatzen ari

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA
Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



zirela harrapatu nituen lokalean. Ba ote euskal talde hoberik beraien abesti baten bertsioa ateratzeko? Zuek atera kontuak.

Braka gustura dabil gitarraren mastila eskuekin korrituaz, abestearen pisua gainetik kendu zuenetik gehiago saiatsen da gitarrarekin, eta emaitzak bikainak dira. Irribarre txolina ahoan duela bere txakur txikia lazantzen ikusita ez dirudi gitarrari horrelako soinua bortitza ateratzeko ahalmena duenik. Rubio eta Bonek oinarri eritmikoa markatzen dute bizitza horretan emango balute bezala. Beraiekin egon nintzen azkenaldian Bonek gitarra jotzen zuen. Ez dirudi hala denik, makilekin duen segurtasun eta konfiantzari so eginaz betidanik bateriaren aurrean eserita egon dela ematen baitu. Zer izango litzateke bateria, entzulearen urdaila bibrarazteko Rubioren laguntzarik gabe? Sabeleko dardarak ez du inoiz huts egin baxuaren indarra neurtzeko orduan.

Diskoari buruz... maketa soilean geratu ezin duen lana da. Kalitatea dugu, kantitatea dugu (7 abesti), prezioa 5 euro... joan zaitezte azkar



Harremanetan jartzeko:
669899253 (Iban) edo
661426175 (Jon)
e - p o s t a :
itakatakata@yahoo.es.
Internet orria (laster):
www.itakatakata.com.

Zumaiako tabernetara, maketa agortzen bada baliteke hurrengo aldian grabazioak 15 euro baino gehiago balio izatea eta. Pop itsaskor eta heavy permanentean adituak diren euskal diskoetxeek lan hau ondorioz gabe igarotzen ez uztea espero dut. Baina horretarako Itakak autopromozioaren lan nekeza hartu beharko du, alferkeriak talde bikain asko antzu utzi baititu.

zozketa!!

Itakaren lehen CD-aren bost ale zozketatuko ditugu galdera honen erantzuna asmatzen dutenen artean:

- Zein da grabaketa estudioaren izena?

Erantzunak
aldizkaria@baleike.com-era
bidali martxoaren 31 baino lehen

ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Erretetgio

OIKIA 945447683

Nazioarteko hamar artistak enpresetan egindako obrak izango ditugu herrian

Arteak eta enpresak, biek bat

ITSASO IBARRA

Maiatzetik aurrera Zumaiako txoko batzuetan hainbat artelan ikusteko aukera izango da. Artelan horiek, Divergentes programaren barruan garatutakoak izango dira.

Egitasmo honen bultzatzaile nagusiak Zuloaga Museoa, Xabide kultur kudeaketarako enpresa eta Bilboko Windsor galeria dira. Proiektu honen bitartez, alde batetik arte sormenaren eta berrikuntza teknologikoaren arteko harremana bultzatu nahi dute; bestalde, ordea, artista hasiberriak ezagutarazteko bidea ere bada egitasmoa. Helburu horiek lortzeko asmoz, arte eta teknologi munduko adituek osatutako epaimahai batek artista batzuk aukeratuko ditu, teknologia

berriekin zerikusia duten Euskal Herriko enpresa batzuetan egonaldiak egin ditzaten.

Nazioarteko hamar artista horiek enpresetako "langile" bihurtuko dira aldi baterako. Baina beraien lana gainontzeko langileengandik ezberdina izango da. Izan ere, enpresa bakoitzak lantzen dituen teknologia, material eta prozesu kontzeptuekin lotura duten obrak sortzea izango baita beraien zeregina. Horrela, enpresa munduaren eta arte munduaren arteko harremana sortuko da.

Lantegiek apirilean zabalduko dizkiete ateak artistei, eta gehienak oso ezagunak dira: CAF tren lantegia; EITB; IKA4; Ikusi elektronikako, informatikako eta telekomunikazioetako lantegia; Irizar autobusen kooperatiba; Ulma taldea; multime-



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK OSTOLAZA AROZTEGIA

Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

dia plataforma berriak irekitzen dituen VICOMTech; eta Tecnalia. Artistek bi eta lau aste arteko egonaldia egingo dute lantegian, eta tarte horretan enpresaren lana beraien artelanean islatu beharko dute.

Hasierako lana enpresa barruan egingo dute, baina maiatzaren amaieratik aurrera proiektua kanpora, atari zabalera, aterako dute. Hamar artelanak herriko zenbait txokotan jarriko dituzte ikusgai. Horrela, ibilbide bat sortuko da eta aukera izango da artelaneetik artelanera joateko. Obra gehienak Zuloaga museoen inguruan jarriko dituzte, baina Paolaldeak eta Mari kaleak ere izango dute obraren bat inguruan.

Erakusketa maiatzaren 26an zabalduko da, baina erakusketaz haratago doa Divergentes proiektua. Udako hila-beteetan hainbat ekintza antolatuko dira erakusketaren inguruan. Lehen aipatu moduan, Zuloaga museoa da proiektu honen bultzatzailetariko bat eta museoan bertan, Divergentes proiektua nola gauzatu den azaltzen duen ikus-entzunezko bat egongo da ikusgai. Hain zuzen ere, artelan hori EITBn egongo den artistak egin beharko du. Artista horrek, halaber, EITBko kateetan proiektua iragarzkeko emitituko den spota ere sortu beharko du. Horrez gain, bisita gidatuak, kontzertuak, performance-ak, proiektzioak, jardunaldiak eta hitzaldiak ere izango dira erakusketaren inguruan, baina oraindik denen berri ematea ezinezkoa da, hil honen amaieran zehaztuko baitira ekitaldiak. Bestalde, dagoeneko hitzartuta daude "Artistak enpresetan" eta "Arte publikoa eta lurralde etorkizun turistikoa" hizpide dituzten mintegiak.

Proiektu honetan zein artistak parte hartuko duten martxoan emango dute aditzera. Apirilean, artistek zein enpresa egokitu zaien jakingo dute, baita beraien obra zein lekutan erakutsiko den ere. Horrela, apiriletik maiatzera bitartean artista bakoitza bere enpresan arituko da lanean, eta ekainetik irailera beraien obrak izango ditugu ikusgai herriko txokoetan.

Olatz Iruretagoiena berriz saritua



Olatz Iruretagoiena zumaiar gazteak irabazi du Ramon Rubial Fundazioak antolatzen duen literatur lehiaketa. Euskal Herri mailan antolatzen den lehiaketa honek bi maila ditu: 8tik 13 urte bitartean bat eta 13tik 16ra bestea. Bigarren honetan euskaraz idatzitako ipuinen kategorian lehen saria irabazi du Olatzek "Espetxeratu gintuzten idatziak" ipuinarekin. Literatur lehiaketara aurkezteko "demokrazia eta tolerantzia" hartu behar zen gaitzat, eta Olatzek 1917. urteko Errusiako iraultzan kokatu du bere ipuina, bertan kazetari eta idazleek bizitako eskubide urraketari buruzko istorioa idatziz. Berak esan duenez, ez omen zaio zaila egin garaia kokatzea, dokumentazio lanaz lagundu baita, eta gainontzekoa imajinarioaren laguntzaz osatu du. Gustura dago Olatz jasotako sariarekin. Asko gustatzen zaio idaztea eta badaki lehendik ere zer den sariak jasotzea: San Telmo sarian arlo desberdinetan saritua izateaz gain, iaz Zumaiako Dendari Elkartek antolatutako ipuin lehiaketa ere irabazi zuen. Oraingoan, ordea, ez du sari makala jaso: hamabost egun Erresuma Batuan ingelesa ikasten, ordenagailu bat etxerako, eta liburu sorta bat eskolarako. Martxoaren 7an jaso zuen saria Bilbon eta bertara joan zen Maria eta Jose ikastetxetik antolatutako autobusa.

 **OSTOLAZA**
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza

TOKIKO AGENDA 21



A tal berri honetan gure herrietako Tokiko Agenda 21en berriak zabaldu nahi ditugu hilabetero. Baina, zer da Tokiko Agenda 21a? Herriaren bizi kalitatea hobetzea bilatzen duen egitasmoa da. Horretarako, areka bilatzen du ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren artean.

Prozesu hau aurrera eramateko herriaren parte hartzea ezinbestekoa da eta parte hartzeko era desberdinak daude (Herriaren foroa, web orria, mahai teknikoak etab.)

HILABETE HONETAKO BILERAK

Momentu honetan herriaren diagnostikoa egiten ari gara egungo egoera ezagutzeko asmoz. Diagnostiko hori burutzeko mahai teknikoak eta herritarren foroa antolatuko dira.

MAHAI TEKNIKOAK: eztabaidagune hauek teknikari, politikari eta zenbait eragile sozial eta ekonomikoek osatzen dituzte. Udazkenean bildu ziren partaideak berriro ere elkartuko dira. Hauek dira bileren datak:

Martxoak 8. 18:30tan:

- *SOZIOEKONOMIA, KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, PARTEHARTZEA ETA PLANEAMENDUA*

Martxoak 22. 18:30tan:

- *JARDUERAK, INGURUMENA eta INGURUMEN BEKTOREAK (Ura, energia,...)*

Mahaietan parte hartu nahi duten taldeek izena eman behar dute bilera aurretik. Herritarren foroan parte hartzeko berriz ez da behar izena ematea. Hurrengo foroa apirilaren 12an izango da 19:00etan Foronda kultur etxean.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Amaia Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



icardo J. Azcue Yeregui
Abokatu • Asegurak
Finan Administrazioa

biomin aguirre 4, behea
20.750 zumaia (gipuzkoa)
E-mail: rajazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax. 943 862748



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzu eta Foru departamentua

ZINE FORUM

martxoak 17, osteguna, gaueko 10:15ean

Silver City

Zuzendaria: John Sayles **Aktoreak:** Danny Huston, Chris Cooper, Daryl Hannah, Richard Dreyfuss, Billy Zane.

«Silver City» no deja de ser una prolongación de la constante temática que Sayles ha tratado de manera más o menos soterrada a lo largo de buena parte de su obra. La pasión que este irreductible cineasta independiente demuestra hacia la cultura latinoamericana



y la problemática social y política que bulle al otro lado de Río Grande provoca que sus filmes adquieran una lectura mucho más compleja de lo que a simple vista pueda parecer.

El autor de «Casa de los Babys» utiliza la carrera política de un aspirante a gobernador para, progresivamente, mostrar la cara oculta de una realidad silenciada y que tiene mucho que ver con la esclavitud moderna que sufren los espaldas mojadas. Es inevitable centrarse en la apabullante caracterización que Chris Cooper hace de un político sospechosamente parecido en su escalofriante simplicidad al temible Bush junior. Sus delirantes y breves apariciones son tan geniales (memorable el paseo a caballo entre Cooper y Kris Kristofferson) que sobresalen del resto de una obra que cuenta con un epílogo demoledor.

marxoak 31, osteguna, gaueko 10:15ean

Como una imagen

Zuzendaria: Agnès Jaoui **Aktoreak:** Marilou Berry, Agnès Jaoui, Jean-Pierre Bacri, Laurent Grevill

Lolita Cassard noraezean dabilen neska sentikorra da komedia honen pertsonaia nagusia. Bere pisuaz lotsatu egiten da, eta inguruan inork ez dio behar duen arreta eskaintzen. Etienne, aita, sorkuntza krisian murgildutako idazle eta argitaratzaile ospetsua da, beti oso lanpetuta, eta Karineren, andregai gazte panpoxaren, desioak bete nahian. Lolitari kantu ikasketak ematen dizkio Sylvia andereñoak; Pierre, berriz, haren senarra da, orain arte arrakastarik izan ez duen idazlea. Bion bizitza erabat aldatuko da Lolita idazle miretsiaren alaba dela ohartzen direnean. Horiekin guztiekin batera, neskatoaren laguntza jasoko duen Rachid gaztea, arazorik ez izateko Sébastien izena erabiliko duena.



Musika eta idazketa munduan kokatzen den pelikula hau pertsonaia askoren bide gurutzatzea da, hainbat istorio harilkatuz, autoestimua eta norbera den bezala onartzeaz diharduena, irudiarri garrantzi handiegia ematen dion gizarte honi kritika eginez.

Aktoreen lana, zoragarria; elkarrizketak, bikainak... Cannes-en gidoi onenaren saria jaso zuen merezimendu osoz zuzendaritza eta antzezle lana betetzen duten bikote honen filmak. Zinematik lurra ukitu gabe pozez irtetea lortzen duen harribitxi gomendagarria.

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"
Erribera 9 - 20750 ZUMAIA • Tel. 943 861 191

OPTIKA ZUMAIA
Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

EGOKI
Erloju eta bitxidenda
E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

agenda

ZUMAIAKO XI.MENDI ASTEA:

martxoaren 15etik 18ra, mendiko ikusentzutekoak 7.30etan Foronda kultur etxean

15, asteartea BENANTXIO IRURETA "Putha Hiun Chuli (7.296)" Nepal; igoera oinez eta eski bidez.

16, asteazkena POTO GORROTXATEGI eta BELEN EGUZKIZA

- "Eski ibilbidea Canadako Glaziareen Parke Nazionalen"

- "Mendi eskia Argentinan"

- "Itsasertzeko Alpeetan eskiatzen"

17, osteguna JUAN VALLEJO "Por las zonas frías de la tierra"

18, ostirala Rosa LIZASO ETA

MIKEL BRINGAS "Asiako hego-ekialdean tandem bizikletaz"

MARTXOA

11, ostirala 22:00etan antzerkia "Las mujeres de verdad tienen curvas"

13, igandea 12:00etan Haur antzerkia GU GEU : "Ipuin musikala"

17, osteguna 22:15etan zineforum saioa "Silver city"

18, ostirala 22.30etan HIRU TRUKU "Nafarroako kantu zaharrak"

31, osteguna 22:15etan zineforum saioa "Como una imagen"

APIRILA

1ETIK 4RA ETA 8TIK 10ERA santelmoak 2005

Apirilaren 14ean: zineforum saioa

"Frio sol de invierno"

Apirilaren 21ean (edo 22an hau ere gaur konfirmatzeko) 5.30ean

Ipuin kontaketa haur liburutegian

Apirilaren 22an : 22.30ean Alondegia aretoan Antzerkiola Imaginarioaren antzezlan "Kaputen kanta"

Apirilaren 28an: zineforum saioa "2046"

Apirilaren 29an: 7etan Aita Mari aretoan Beheko Plaza Abesbatza eta abesbatza gonbidatu baten kontzertua

ERAKUSKETAK

Apirilaren 7tik 9ra Parrokiko Taldeak antolatuta, Alondegian, Bidezko Merkataritza azoka.

Apirilaren 28tik maiatzaren 8ra Aranzadi zientzia Elkartearen "Aurora 2001" erakusketa. Zabalteze ekitaldi-hitzaldia, 19.00etan.



Mendi astea

Martxoaren 15etik 18ra egingo da XI. Mendi Astea. Lau ikusentzunezko aurkeztuko dira Foronda kultur etxean. Horien artean, hilabete exkax bertan behera geratu zen "Asiako hego-ekialdean tandem bizikletaz". Gozamina.



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

Ardantzabide

altzariak - aroztegia



**tarimak, ateak,
leihoak, pertsianak,
horma armairuak,
aluminiozko armairuak...**

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia

Tel/faxa: 943 862 532

Tailerra: Santixo auzoa 40



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

IBARGUREN

agustin

- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak